

ZIORTZA (V): ELEIZEA

Ederrak eder, Ziortza'n daukaguzan gauzarik ederrak eta gogoangarrienak eleizan daukaguz. Begiratu daiguzan banaka.

Eleizpea

Eleizarra sartu baiño lenago aztertu daigun eleizpea.

XVI gizaldikoa da eta gaiñean teillatua dauka: zurezkoa erakundea eta oin batzuk neurritzi edo jeometri-giroko apaingarriak. Age batetik uste bako oin batek urteten dau beerantza eta onen erpiñak pizti baten irudia dauka.

Eleizpearen barruan ate buru Nagusia daukagu, gotiku-tankerakoa dan ate eder baten inguruan. Inguru au turuta-antzekoa da eta eleizea baiño lenagokoa. XIV gizaldikoa izan daiteke. Arrokeri bako apaingarriak daukaz eta dauan edertasuna ageak eta arkuak alkarren gaiñean egotetik datorko eta ageen gaiñeetan age-buru ariñak dagoz.

Atearen berberaren gaiñean eskartzako deritxon arku dago (puntu erdia oso beeratua dauana) eta arku onen eta ate-inguru apainduaren artean tokitxu irokoi-txa agiri da, tinpano-antzerak, eta iruki onen barruan irudi irarrita: Aingeru bi turuta jotzen eta onein erdian Kristo jesarrita. Kristo'ren irudi au oso antxiñakoa da eta iru irudiak trebetasun aundi barik egiñak, erri-girokoak. Tinpanu onen gaiñean idazki batek Eskaltzo abata aitatzten dan.

Eleizpean daukagu, baita, leio-antzeko santu-leku aundi bat, puntu-erdiko arku dauana eta barruan zurezko kurutze bat. 011obi baten tinpanua dala dirudi baiña oargarriak dira dituan irudiak: Kurutzea, kaliza, liburua zabalik, makobil bi neurritziz edo jeometri-irudiz apainduak. Eta gaiñean beste tinpono-antzeko txikiago bat barruan mairo-iltzaille dan zaldizko Santiago dauala. Erri-giroko erti-lana dala dirudi onek be.

Eleizearen erakundea

Sartu gaitezkan barrura eta begiratu lenengo eleizea zelaz egiña dan edo zelako erakundea dauan: Gotiku tankerakoa da, erri-leku bakarrekkoa, eta altara-atzea poligonoa, zortzi-zokotatik iru dituala. XIV gizaldian asi ziran eleiza au egiten eta ordukoak dira altara-atzeko age-buruak, orriak eta apaingarriak. Baiña sabaian diran kirio-antzak, bai altara-gaiñean eta bai eleiza osoan, gero egiñak dirala dirudi. Teillatuaren astuntasuna artzeko bizkar-azur antzeko bat dauka eta astuntasuna "arbotante" deritxoen euskin bitara doa.

Altara-atzea ta iruditegiak

Altara-inguruan iru iruditegi edo "retablo" dagoz. Erdikoa da garrantzitsuenak. Plateresko-tankerakoa, 1534n. urtean asia Aiala'ko Juan egille dala eta gero flamenkoa dan Beaugrant'eko Guiot'ek amaitua. Onenak dira ume biak eta serafin biak. Ba-dauko iruditegi onek geroagokoa, barroko-tankerako dan zati bat be, XVIII gizaldikoa. Au oin aundi bat da eta eutsi egiten dautse iruditegiari, sagrarioari, ager-tokiari, Antolin eta Erroke deunen irudiai eta Andra Maria'rentzat dan obiari.

Andra Maria'ren irudi au XIV gizaldikoa dala diñoe, naizta Mugartegi k bere liburuan XI ekoa dala esan. Iruditegi onetan 1734n. urtean ipiñi eben, orregaitik dira diran lakoak euskarria ta obia. Irudia bera jesarrita dago, altzoaren erdian umea dauala, eta umaren eskuan liburua latinez idazki au dauala: "Agur Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz". Barrizkuntza baten "Agur Maria" bakarrik itzi eutsoen joan dan gizaldi-erdian. Ori egin ebanak berak irudia margoztu egin eban, baita inguru guztia be. Ori dana kenduko dabela uste dogu eleizea barriztatzen danean.

Beste Andra Mari bat be ba-dago. Jazokundea da, lau aingeru inguruan dituala.

Iruditegiaren goragoko maillan Kurutzeko Jesus eta kurutzearen oiñean diran Andra Maria ta Jon deuna daukaz.

Albo bietan santu bi dagoz irudizko teillatupean eta goian be, erdian, Alta Betikoaren irudia, tiara ta guzti, irukizko teillatupean.

Garrantzitsuak dira Andra Maria'ren albo bietan dagozan margozkiak. Lau margozki dira, Borgoña ko Juan n eskolakoak, goian deikundea ta ikustaldia eta beian jaiotza ta Erregeak. Ertizko lan ederrak dira oneik.

Iruditegiaren barrenak iru toki luz anga daukaz eta oneitan apostoluak urten-gitxiko esku-lanetan.

Beste iruditegi txiki biak geroagokoak dira, barroko tankerakoak, 1746n. urtean Urkitza'ko Juan lekeitia-rrak egiñak, eskoikoa Agurtzako Amarena, goian Jose deunaren margozkia dala. Ezkerrekoak, ebanjelio-aldekoak, beian Jose dunaren irudi bat dauka eta goian Sor-kunde Garbiaren margozkia. Iruditegi biak dira politak baiña ez dabe ondo jotzen erdikoagaz.

Altara-ingurua dana aldatzeko ustea egoan 1782n. urtean, baiña ez zan egin aldaketa au. Egiteko ziran planorik geienak ba-daukaguz: iru iruditegiak kendu, erdi-erdian tenplete bat ipiñi, gaiñean kupula erdi-bi ri

lla, Andra Maria'rentzat obi bat eta kanonikuen jesarleku eder-apainduak, eta abar. Aldakuntza ori ondo pentsatua zan liturjirako baiña egin ba'litz galtze aundi bat izango zan eleizan dan guzarik ederrena, iruditegia, kenduko ebelako.

Olazar'tar Martin